

“NAFARROAKO ENPRESA KORPORAZIO
PUBLIKOA” SORTZEAREN INGURUAN
ELAren BALORAZIOA

Iruñean, 2009ko maiatzak 13

“NAFARROAKO ENPRESA KORPORAZIO PUBLIKOA” IZENeko SOZietatea
SORTZEARI BURUZKO LEGE PROIEKTUAREN INGURUAN
ELAren BALORAZIOA

I.- Sarrera

Gaur egun, kapital publikoko enpresa pribatu ugariren parterik handiena Nafarroako Gobernuarena da zuzenean. Izaera eta jardun pribatuko enpresa horiek diru publikoz sortu dira.

Enpresa horiek Administrazio Publikoari dagozkion zereginak betetzeko eginkizuna dute, zerbitzu publikoak pribatizatzeko beste bide bat itxuratzen dutelarik.

2007an (Kontuetako Ganberak argitaratutako azken datuen arabera), kapital publikoko 32 enpresa pribatu zeudela, guztira 1.092 langile ibili ziren beraietan lanean, eta 12 milioi euroko mozkinak lortu ziren denera. Enpresa horietako hirutan, langile bat ere ez dago, eta beste 19tan, 25 lagun baino gutxiago dabilta lanean, nahiz eta beraietako guztiek Administrazio Kontseilu bana baduten.

2007an, aipatutako enpresa horietako 20k 27 milioi euro jaso zituzten diru-laguntzetan, milioi horietatik 25, Nafarroako Gobernutik, hain zuzen ere.

Hiru gizarte-xede bakarrik betetzeko, 18 enpresa eratu dira; horrek esan nahi du hainbat enpresak dihardutela xede bereko zereginetan (lurzoruaren sustapenean, 7 enpresa ari dira; industria sustatzen, 6, eta informatika-gaietan, 5 enpresa).

Kontuetako Ganberak hainbat aldiz premiatu du Nafarroako Gobernua, enpresen esparru hori antolatu eta berritxuratu dezan (2006ko eta 2007ko Kontu Orokorrei buruzko Txosten Orokorretan, eta Administrazioaren Enpresa Publikoei buruzko 2008ko Fiskalizazio Txostenean, besteak beste).

II.- Foru Lege Proiektuaren Edukia

Nafarroako Parlamentuak 2009ko martxoaren 24ko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Foru Lege Proiektuak “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa” deritzona sortzea

aurreikusten du. Sortu nahi den sozietatean, Nafarroako Gobernuaren zuzeneko partaidetza duten kapital publikoko beste enpresa pribatuak sartuko dira.

Enpresa berria ondarearen arloko eskumena duen Departamentuaren menpe egongo da, eta horrexek izendatuko du beraren Administrazio Kontseilua, bai eta, beraz, enpresa zuzenduko duten pertsonak ere.

Lege Proiektuak aurreikusten duenez, sozietatea bi sektore bereiziz antolatuko da: "Administrazioaren Sektorea" eta "Merkatuaren Sektorea", alegia. Lehenengoaren barruan, interes publikoko jarduerak garatzen dituzten enpresak egongo dira, eta "Merkatuaren Sektorean", berriz, industrian edo merkataritzan diharduten enpresak.

Enpresen trataera ezberdina izango da administrazioaren sektorean ala merkatuaren sektorean dauden kontuan hartuta. Administrazioaren sektorean sartutako enpresetan, "berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatuz" kontratatuko dira langileak, eta enpresa horien jarduera parlamentuaren kontrolpean egongo da.

Merkatuaren sektorean, aitzitik, "errentagarritasun printzipioarekin bat, etekinak sortzea izango da helburua". Enpresak horiek, gainera, ez dute "Administrazioaren ente instrumentalaren izaera" izango, eta, horrexegatik, Administrazioaren eta Parlamentuaren edozein kontrol-prozeduratatik kanpo geratuko dira. Sektore horren kasuan, ordea, ez du esaten langileen kontratazioa "berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatuz" egin beharko denik.

Ildo beretik, Nafarroako Gobernuak Lege Proiektu honetan dioen arabera, merkatuaren sektoreko enpresei ez zaie ezarriko Mahai Orokorrean negoziatu eta 6/1999 Foru Legean xedatutako lanaldia, asteko 35 eta urteko 1.592 ordukoa, alegia.

III.- ELAren balorazioa

1.- Kapital publikoko enpresa pribatuak egotea kritikagarria da berez. Baina Administrazio Publikoak enpresa pribatuak sortzea eta enpresa horiei Administrazioak egin beharreko lanak eta betekizunak esleitzea guztiz onartezina da, politika publikoen aldeko edozein pentsamolderen arabera.

Horrela, Administrazio Publikoaren eskumeneko ekintzak pribatizatzea lortzen da. Pribatizazioak enpresa horietan ipinitako partikularren eskuetan uzten du Administrazioak gauzatu beharko lituzkeen zerbitzu eta eginkizun publikoen kudeaketa.

Kontuetako Ganberak berak ere adierazi du horrelako enpresek salbuespen izan beharko luketela.

2.- Izatez, haxe bermatzen da era horretako enpresak sortuz: kargu publikoentzako eta aginte politikotik hurbil dagoen jendearentzako tokia (Kontuetako Ganberak adierazi duen legez), hain zuzen ere, beraietako administrazio-kontseiluetan eta gainerako ardura-postuetan aritzeko, Administrazioaren inolako kontrolik pasatu gabe, gainera.

Erabateko enpresa-gune hori aginte politikotik hurbileko jendearen eskuetan jarritz (askotan, Gobernuako kide eta kargu publikodunak tartean), bertan ipini dituztenen interesen alde jokatzeko duen *lobby* eratzten da.

3.- Bestalde, Nafarroako Gobernuak era horretako enpresen bidez saihestu egiten ditu Administrazioko prozeduraren mugak, Administrazioaren edozein jarduketaren gainean egoten den kontrol administratibo eta formal orotatik itzurtzearen. Hau da, enpresa pribatuak erabiliz, saihestu egiten ditu Administrazioko kontrolak. Horrek irregulartasunak gertatzeko arriskua dakar.

4.- Kapital publikoko enpresa pribatuen esparruan dagoen nahaspila norainokoa den irudikatzen laguntzearen, guztira zenbat enpresa dauden argitzerik ere ez dagoela aipa dezakegu. Lege Proiektuan, 30 enpresa agertzen dira "Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L." deritzon sozietatea osatzeko dutenen zerrendan. Baina Nafarroako Gobernuak Lege Proiektu horren inguruan 2009ko martxoaren 2ko dataz argitaratutako prentsa-oharrean, 32 enpresa aipatzen dira (kopuru hori bat dator Kontuetako Ganberak adierazitakoarekin).

Dena den, Nafarroako 2009rako Aurrekontu Orokorretan, Instituzio, Erakunde Publiko, Sozietate eta Fundazio Publikoei buruzko atalean, 35 enpresarentzako aurrekontua xehatzen da.

Nafarroako Gobernuak enpresa horietan guztietan du partaidetza, baina parte hori ez da kasu guztietan %100ekoa.

Argitara emandako hiru zerrendak (Lege Proiektukoa, prentsa-oharrekoa eta 2009ko Aurrekontuetakoa) alderaturik, 40 enpresa aipatzen dira guztira, hiru zerrendetan ez baitira enpresa berberak azaltzen.

5.- “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa” sortzea ez da Nafarroako Gobernuak daukan eta Kontuetako Ganberak hainbat aldiz adierazi duen enpresa-nahaspila zuzentzeko irtenbidea. Proiektuaren arabera, gainera, korporazioan ez dira sartuko une honetan kapital publikoz eratuta dauden enpresa pribatu guztiak.

Halaber, enpresa horietako batzuk beste enpresa berri batean elkartu eta bi multzotan zatitzeak ez du anabasa-egoera hobetuko. Xede bererako sortutako hainbat enpresak jarraituko dute jardunean, bai eta Administrazio Kontseilua bai baina langile bat ere ez dutenek ere. Hortaz, bere horretan segituko du “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.” sozietate berria sortu baino lehenagoko enpresa-gehiegikeriak.

Bestalde, Nafarroako Gobernuaren zeharkako partaidetza duten enpresak, hau da, Gobernuak beste enpresa baten bitartez parte hartzen duenekoak, aipatu ere ez ditu egiten Lege Proiektuak.

6.- “Merkatuaren Sektorea” deiturikoa sartzen diren enpresak Administrazioaren kontrolpetik kanpo geratuko dira, eta ondarearen arloko eskumena duen Departamentuaren menpe egongo dira soilik. Nafarroako Gobernuari enpresa horien gainean inolako kontrolik gabe jarduteko aukera emango dio egoera horrek.

7.- Lege Proiektuaren beste helburu bat lan-eskubideak zapuztea da. Asmo horren baitan dator Nafarroako Gobernuak “Merkatuaren Sektorean” sartzen dituen enpresetako langileei 6/1999 Foru Legean itundutako asteko 35 orduko lanaldia ez aplikatzea.

Enpresa horietako langileek, Administrazioarentzat dihardutenez, Administrazioa langileen trataera bera izan beharko lukete.

Modu horretan, kontratazioak eta lan-baldintzek Administrazio Publikoko gainerako langileentzat xedatutako berberak izan beharko lukete.

Baina, Nafarroako Gobernuak darabilen privatizazioa medio, kapital publikoko enpresa pribatuetan lan egiten duten guztiek Administrazio Publikoan diharduten langileenekin antzik ere ez duten kontratazio- eta lan-baldintzak jasan behar dituzte.

IV.- Eranskina

NAFARROAKO GOBERNUAREN PARTAIDETZA DUTEN KAPITAL PUBLIKOKO ENPRESA PRIBATUAK	
1	NAFARROAKO BERRIKUNTZA ETA TEKNOLOGIA AGENTZIA, S.A.
2	NAFARROAKO GARRAIO ETA LOGISTIKA AGENTZIA, S.A.
3	NAFARROAKO AUTOBIDEAK, S.A.
4	BALUARTE NAFARROAKO KONGRESUEN JAUREGI ETA AUDITORIOA, S.A.
5	NAFARROAKO UBIDEA, S.A.
6	NAFARROAKO ENPRESA ETA BERRIKUNTZA ZENTRO EUOPARRA, S.A.
7	NAFARROAKO HIZKUNTZEN AUTOIKASKUNTZARAKO GUNEA, S.A.
8	IRUÑEKO GARRAIOAREN HIRIA, S.A.
9	NAFARROAKO ENPRESARI GAZTEEN FONDOA, S.A.
10	INGURUMEN KUDEAKETA –NAFARROAKO MINTEGIAK ETA BASOBERRITZEAK, S.A.
11	ZORREN KUDEAKETA, S.A.
12	NAFARROAKO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN KALITATEAREN INSTITUTUA, S.A.
13	NEKAZARITZAKO TEKNIKA ETA KUDEAKETA INSTITUTUA, S.A.
14	ABELTZAINZAKO TEKNIKA ETA KUDEAKETA INSTITUTUA, S.A.
15	IRUÑEKO HORNIDURARAKO MERKATU ZENTRALAK, S.A.
16	NATURAL CLIMATE SYSTEMS, S.A.
17	NAFARROAKO FINANTZIAZIOA ETA KONTROLA, S.A.
18	NAFARROAKO ADMINISTRAZIOARAKO KUDEAKETA, S.A.
19	NAFARROAKO TOKI AZPIEGITURAK, S.A.
20	NAFARROAKO INDUSTRIA INGURUMENA, S.A.
21	NAFARROAKO ZERBITZUAK, S.A.
22	NAFARROAKO INDUSTRIARAKO LURZORUA, S.A.
23	NAFARROAKO ETXEBIZITZETARAKO LURZORUA, S.A.
24	NAFARROAKO LEGE EGIAZTAPENAK, S.A.
25	NAFARROAKO HERRI LANAK ETA KOMUNIKAZIOAK, S.A.
26	PIRINIO MENDEBALDEKO PATATAREN ERAKUNDEA, S.A.
27	IRUÑEKO PLANETARIOA, S.A.
28	ZUBITZAKO POTASAK, S.A.
29	NAFARROAKO INFORMATIKA EKOIZPENA, S.L.
30	NAFARROAKO UREZTALURRAK, S.A.
31	NAFARROAKO UBIDEAREN UREZTALURRAK, S.A.
32	ETXERAKO GATZA, S.A.
33	NAFARROAKO GATZAGAK, S.L.
34	NAFARROAKO GARAPEN SOZIJETATEA, S.A.
35	NAFARROAKO ELKARREN BERMERAKO SOZIJETATEA, S.A.
36	NAFARROAKO INBERTSIOAK ETA AZPIEGITURAK SUSTATZEKO SOZIJETATEA, S.A.
37	START UP CAPITAL NAVARRA, S.A.
38	ERRONKARIKO LURRALDEA, S.L.
39	KATASTRO LANAK, S.A.
40	NAFARROAKO ETXEBIZITZAK, S.A.

Iturria: 2009/03/24ko Foru Legearen Proiektua, 2009/03/02ko prentsa-oharra eta Nafarroako 2009rako Aurrekontu Orokorrak